

# noaua

Haimar Zubeldia,  
Tourra hasteko gogoz

Hezkuntza Mahaina osatu da

Usurbil Cup txapelketako  
sari banaketa, iruditan



Jaiak Kalezarren

**San Joan suak**

**uxatu ditzala gaitz guztiak**



**44amaika**  
ikusteko, bizitzeko



LTD/Euskaltel



Ordenagailuan



Ipad/Tablet



Mugikorrean

**Nazioa eskura**  
[www.hamaika.tv](http://www.hamaika.tv)



**ORDUTEGI BERRIA:**  
egunero 06:00tik 21:00ra

asteburutan ere  
gaueko 21:00ak arte!

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

[http://www.](http://www.noaua.com)

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala  
orain ere noaua.com web orrian



Etxebizitzak, garajeak, motorra,  
lanpostuak, trukean...  
Zure oharra Internet bidez igo  
eta kontsulta dezakezu

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

 **MERKATU TXIKIA**



**noaua** usurbildarren zerbitzura



## Albiste iruditan

# Adimen urritasuna dutenei laguntzen

Eguneko Zentroa kudeatzen duen GSR enpresak urtero gizarte zerbitzuen alorrean diharduten talderen bat diruz laguntzen du, aipatu enpresak kudeatzen dituen egoitzako udalerrietan. Aurten, laguntza Usurbilen banatzea erabaki dute. Onuraduna, adimen urritasuna duten usurbildarren taldea izan da. Talde honetatik kide batzuk, urtero udan bi astez oporretara joan ohi dira. Tarte horretan, eurek ondo pasa ahal izateaz gain, senideek atsedean hartzeko aukera izaten dute. Aurten zazpi lagun doaz opor hauek. Eguneko Zentroa ustiatzen duen enpresaren diru-laguntza taldetxo honi ematea erabaki dute, senideekin hartu emanetan izan ostean. Modu honetan, oporraldi honetaz gozatzera doazen lagun bidaia kostua arinduko zaie senideei. Adimen urritasuna duten herritarren senideen bilgunitik, GSR-koek emandako laguntza eskertu nahi dute lerroon bidez.



Eguneko Zentroa kudeatzen duen GSR enpresak egingo du diru laguntza.

## Laburrean

### Haurren Eguneko ginkana

Ohi bezala, herriko guraso talde bat, Santixabeletako haurrei zuzenduriko ekitaldiak antolatzeko lanak kudeatzen dabil. Besteak beste, haurrentzako ginkana prestatzen ari dira, aurten uztailearen 1ean ospatuko den egunerako. Interesdunek, idatzi dezatela email bat jsoa6@gmail.com helbidera. Eta bertan adierazi dezatela, parte hartu asmo duen haurraren edo haur taldearen izen abizenak eta ikasurtea. Haurrentzako ginkana, uztailearen 1ean, goizeko 10:30etatik aurrera frontoian. Haurren Egunerako laguntzaileak ere eskertuko lituzkete antolatzaileek.

### Bertsopaper lehiaketa

Sariketan parte hartzeko aukera zabalik dago jada. Astelehenez, uztailearen 1ean gaueko 22:30etatik aurrera emango dute lehiaketako irabazlearen izena aditzera, frontoian ospatuko den bertso saioaren amaieran. Ekimenean parte hartzeko baldintzak, aurreko urteetakoak dira:

Usurbildarra izatea, 6-10 bertso artean idaztea, gaia librea, lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.

Lanak helbide honetara bidali ekainaren 27a baino lehen: XXXVII. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza, 20170 Usurbil.

### Pintura Lehiaketa

Deialdi gehiago ere badira Santixabelei begira. Herriko jaietako hitzorduen artean, klasiko batean bihurtu da haurrei zuzenduriko Pintura Lehiaketa. Aurtengo gaia: "Zein da zuretzat Usurbilgo lekuri erromantikoena?"

Hamaikagarren edizioa heldu da 2-16 urte artekoek zuzenduriko Pintura Lehiaketa. Parte hartzeko gogoz denak, pentsatzen hasi dadila zer marraztu nahi duen. Eta ekainaren 29an, goizeko 10:30etatik aurrera frontoian ospatuko den txapelketara gerturatu eta parte hartu, ez dago beste egitekorik. Marrazki onenen artean, hamai-ka sari banatuko dira.

# noaia

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaia.com /// www.noaia.com  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

#### Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Bea Alda,

publizitatea@noaia.com.

#### Diseinu berria:

Erroitx S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

#### Banaketa:

Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Aina

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregerai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Idoia Torregarai

## Udara

Udan sartuko gara aste honetan. Azkenean. Alaba pozik dago, opor luzeak badatoztelako. Izan ere, txikiak garenean, askotarako ematen dute bi hilabete eta erdik, ezta? Niri behintzat, bai.

Ez ginen inoiz familia kanpora atera bakaziyota. Baserriak asko lotzen du, eta kaxko inguruan biltzen ziren nere udako egunak. Baina ederki pasatzen genuen. Betizegoen zerbait egiteko: harra-paketan ibili, frontoian jolastu,

Anaerrekako iturrira joan, kilkerak harrapatu, Gaztaña kanpoan afaldu ondoren Bordatxora helatua erostera joan,...

Eta patata biltzea. Abuztuaren hasieran egiten genuen izeba-osaba eta lehengusu guztiek, gaur egun errotonda eta Leku-Eder etxe artean dagoen lur-sailean. Lan neketsua izaten zen, baina gerri bigunak genituen eta zeinek baldaka gehiago bete apustu egiten genuen gure artean. Lana ordea ez zen hor bukatzen, izan ere, ate-

ratako patata guztia ganbarara igo behar izaten zen. Hor ere nahikoa iskanbila izaten genuen, nor lehenago iritsiko. Baina aurreneko bueltan bakarrik; hirugarrenera-ko pausua moteldu eta hauspoa azkartu egiten baitzizaigun.

Denenburu, nola ez, amona Teodora egoten zen, bastoia eskuetan zuela. Ez zuen baratzera jeitsi beharrik zuzendari lanak egiteko; balkoitik ederki agintzen zigun denoi egin behar genuena. Eta ezze goen inor txintxik ere esan-

gozionik. Amonarekin broma gutxi, baina lanak bukatuta, bagenekien kartera ireki eta ondo ordainduko zigula botatako izerdiak. Errendituta bukatzen genuen, baina pozik, litxarkeriak erosteko txanponak genituelako patrikan.

Espero dut alabak ere horrelako oroitzapen ederrak gordetze-ko aukera izatea. Urteak dira patata eriten ez dugula, baina familiarekin gozatzeko aukera ederra daukagu oraindik baratz txikiaren inguruan.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | **Idoia Torregarai** | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

## Konpromiso etikoa hartzeko eskaera Udalari

Ekainaren 25ean burutuko den osoko ohiko bilkurarako, mozioa aurkeztu du Usurbil Zero Zabor taldeak, udal ordezkariak aztertu eta bozka dezaten. Aurrerapen gisa aipatu daiteke, testuan, Usurbilgo Udalak hiri hondakinen alorrean konpromiso etikoa berea egitea eskatzen dela, "usurbildarron errefusa jasotzeko zabortegiak dituzten herrietako biztanleei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko". Konpromiso etiko hori bete ahal izateko ere hainbat neurri proposatzen ditu Usurbil Zero Zabor taldeak.

**Ehunka lagun, Donostiako manifestazioan** Gipuzkoa zero zabor lurraldea izan dadin, beharrezko neurriak hartzeko inoiz baino gehiago ahalegintzea eta errauste planta egitasmoa behingoz bertan behera uztea. Bi eskerok ozen entzun ziren beste behin, erraustetaren aurka iragan larunbatean Donostian burutu zen manifestazioan. Antolatzaileek

(Eguzki, Ekologistak Martxan, Greenpeace, CCOO, ESK, STEE-EILAS, Ezker Anitza, Ezker Batua, Erabaki, Gorripideak eta Sortu), hondakinen kudeaketaren gaiak konpontzeke jarraitzen duela gogorarazi zuten. Bide horretan, oraindik egiteko asko dagoela diote; udalerritan, birziklatze emaitza onenak ematen dituzten bilketa sistemak abiatzea adibidez. Aipatu bide horretan, gipuzkoarrak bakarrik ez daudela diote. "Europak Gipuzkoa egiten ari den lana onartu eta babesten du", zioten larunbatean, manifestaldiko deitzaileek.

**Kezkatuta, zenbait udalerrirekin** Kezkatuta agertu da Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ) mugimendua, hondakinen kudeaketaren gaiari lotuta azken asteotan hainbat udalerritan izandako gertaerekin. "Zenbait herritako politikariek irtenbideari muzin nola egiten dioten ikus-tea. %60, %80 gaika biltzeko helburua adostu, eta akordioan zehaztutako gauza bakarra, hel-



Pasa den asteburuan manifestazioa egin zen Donostian.

buru hori erdieste bermatzen duela erakutsi duen bilketa sistema bakarra baztertzeko izan baita". Sistema bakar hori atez ateko bilketa esperientziak lirake, martxan jarri eta hilabetera %70etik gorako emaitzak ematen dituen bilketa sistema hain zuten.

Gipuzkoa Zero Zaborretik porrot gisa definitu dituzten birziklatze tasa %40tik igotzen ez diren edukiontzien esperientzien emaitzak.

**LATAILLADE**  
  
**ITURGINTZA**  
 Gas, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua  
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

**JE JON ELORZA**  
 IGELTSEKATZA OROKORRA  
 Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



# Ordezkaritza aldaketa Udalbiltzan

Ziztu bizian hasi eta amaituriko iragan asteko ezohiko osoko bilkuran gehien-go osoz hartu zuten erabakia, gobernu taldearen babesarekin, eta gainerako taldeak abstentuta. Udalbiltza Partzuegoko Kontseilu Nagusirako ordezkaritza berria izango du Usurbilgo Udalak aurrerantzean. Mertxe Aizpurua alkatea izango da aipatu erakunderako udal ordezkar berria, eta ordezkoa, Alaitz Aizpurua zinegotzia. Modu honetan, udalbatzak 2012ko urtarrilaren 31ko osoko ohiko bilkuran harturiko erabakia aldatu dute. Orduan, Udalbiltzarako ordezkar Alaitz Aizpurua hautatu baitzuten eta bere ordezko, Jone Urdanpilleta zinegotzia. Ordezkaritza aldaketa hau proposatzeko erabakia, praktikotasun irizpide bategatik hartu du gobernu taldeak. Usurbilgo alkatea bera baita, Udalbiltza berriko lehendakaria. Eta aurrerantzean, aipatu moduan, baita Usurbilgo Udalak izango duen ordezkar berria ere.



Alkatea izango da Usurbilgo Udalak Udalbiltzan izango duen ordezkar berria.

## Artzabalgo pintura ikastaroen lanak ikusgai

Urtean zehar sorturiko artelanak erakusgai jarriko dituzte Artzabalgo pintura ikastaroko ikasleek. Ekainaren 20tik 23ra, Sutegiko aretoan. Inaugurazio ekitaldi batekin zabalduko dute erakusketa. Ordutegia hauxe:

Ekainak 20,21: 17:00-20:00.

Ekainak 22: 10:00-13:00 eta 17:00-20:00.

Ekainak 23: 10:00-13:00.



Erakusketa Sutegin zabalduko dute, aste honetan.

## Ikusgarritasunerako bidean

Lesbianismoari buruzko erakusketa ireki berri dute Oiardo Kiroldegian. "Eztutukotik ikusgaitasunera 1977-2007" izeneko gunean, "lesbiana feministen kolektiboak eta mugimendu feministak 1977az geroztik burutu duten lan politiko eta sozialaren alde bat jasotzen du, kartelak, aldizkariak, leloak...", berri eman dute antolatzaileek. Ekainaren 30era arte ikusgai dago, Kiroldegiko sarreran. Bestalde, Sutegi udal liburutegiarekin elkarlanean, Sexu Aholkularitza Guneak, "sexualitate anitzak, anitzak hitzak" izenburupean, ekainean zehar hainbat irakurgai jarriko dituzte herritarren eskuragarri. Bi ekimenok, ekainaren 28ko gay, lesbiana, bisexual eta transexualen Harrotasun Egunaren harira antolatu ditu Sexu Aholkularitza Guneak.



Erakusketa paratu dute Oiardo kiroldegian.

# “Iaz bezala, aukeraren bat suertatzen bada

HAIMAR ZUBELDIK (RADIOSHACK LEOPARD TREK) MIMO HANDIAREKIN PRESTATU DU FRANTZIAKO TOURRA

**Entrenatzeko garaian, udaberrri honetako eguraldiak ez zuen asko lagunduko.**

Zorte ona eduki dut nik. Azken lasterketa gehienetan eguraldi ona tokatu zait. Eta etxean izan garenean, beti bilatu dugu eguraldi iragarpena non zen egokiena. Gaur egun Internetekin... Baina azken hilabete eta erdian, batez ere Jaka aldean ibili naiz. Etxe bat dugu han eta askotan joaten naiz Jakara entrenatzera.

**Batetik bestera, beraz.**

Kalifornian (AEB) izan naiz ere. Hara joan aurretik Jakan izan nintzen eta Kaliforniatik etorri ondoren ere bai. Duela bi aste Dauphine Libere itzulian hartu nuen parte eta handik Jakara joan nintzen. Entrenatzeko, inguru hori asko gusatzaten zait.

**Frantziako Tourra begi bistan da. Denboraldiko une inportanteena izango da zuretzat. Sasoi aldetik, nola sentitzen zara aurten?**

Azken urteetan, Tourrera begi-



Iaz maila ederra erakutsi zuen Tourrean.

ra egin dut prestaketa guztia. Urteekin, batek bere gorputza ondo ezagutzen du. Eta uste dut nireak maiatzetik aurrera funtzionatzen duela ondoen, eguraldi ona datorrenean. Esperientziarekin, badakizu zer datorkizun ondo eta zer ez. Eta esperientzia hori oso garrantzitsua da txirrindularitzan.

**Aurtengo helburua hori duzu, Frantziako Tourra.**

Bai hori da, iaz ere ondo joan zitzaidan eta asmoa hori izan da denboraldi hasieratik. Pixkanaka kilometroak egin eta lasterketak baliatuz hobetzen joan. Eta horretan gaude.

*“Bere burua hor aurrean ikustea falta zaio baina lider sendo bat da Andy Schleck”*

## “Uste dut taldeak aurrera egingo duela”

**RadioShack Leopard Trek taldeak datorren urtean jarraituko ote duen, ez dago oso argi oraindik. Bien bitartean, zure etorkizunean pentsatzen hasiko zinen.**

Ari gara mugitzen, baina Tourra pasa arte zain egoteko eskatu digu taldeak. Gurekin kontaktatu dute eta badirudi gauzak argitzen ari direla. Antza denez, Trek gure bizikleta markak hartuko luke taldearen zuzendaritza eta badirudi

gauzak aurreratuta daudela. Baina tira, orain Tourrean pentsatzen ari naiz. Egia da buruan daukadala baina ez nau gehiegi kezkatzen. Uste dut taldeak aurrera egingo duela eta jarraitzeko aukera izango dugula.

**Egungo taldeak jarraipenik izango balu, beraz, bertan jarraitzea nahi zenuke. Gustura zauden seinale, ezta?**

Bai, hori da. Luca Guercilenaren zuzendaritzapean gustatu zait taldeak izan duen lan dinamika. Urteekin txirrindulariak bere lekua egiten du taldearen baitan eta hori ere hor dago.

Baina, bestetik, egia da beste aukera batzuk ere suertatu daitezkeela. Nire managerra egoera aztertzen dabil, baina printzipioz lehen aukera hemen jarraitzea izango litzateke.

**Iazko Tourrean puntan ibili zinen. Batzuentzat, faboritoren artean zaude.**

Talde honetan nagoenetik lider sendoak dauzkagu. Baina iaz, arrazoiz ezberdinengatik liderak ez ziren bere tokian egon eta nire aukera aprobetxatu nuen. Teorian beraientzat lanean egon behar nuen, baina lasterketan gauzak aldatu egin ziren, ondo aurkitu nintzen eta aukera hori aprobetxatu genuen.

Aurten, iazkoa ikusita akaso taldeak askatasun pixka bat emango dit, baina badugu lider sendo bat, Andy Schleck. Tourra irabazita dauka, podiumean behin baino gehiagotan sartu da eta bera izango da lidera. Dena den, Tour batean gauza asko gertatzen dira. Erorketak, edota nahi bezala ez aurkitzea... Ikusiko dugu, aukeraren bat bada iaz bezala, aprobetxatzen saiatuko gara.

**Dena den, Andy Schleck-en denboraldia ez da ona izaten ari. Ez zen ondo hasi baina badirudi azken lasterketetan hobeto ibili dela.**

Denboraldia ez da erraza izan. Baina lider sendo bat da, lehen esan dizudan bezala, emaitzak hor daudelako. Denboraldi honetan falta zaiona da bere burua hor aurrean ikustea. Konfiantza falta hori nabari zaio baina Tourra ondo hasten bada eta ikusten bada aurrekoekin, hartuko du hori ere. Nik uste dut hori pixkanaka etorriko dela.

**Andy Schleck-ekin batera, Tourrera joango den taldean izango zarete Andreas Klobden eta zu. Iazkoa gerta daiteke, alegia, zu izatea taldeko onena. Suertatuko balitz, erantzukizun hori hartzeko**

# aprobetxatzen saiatuko gara”



“Hasi-  
era bihurria du  
aurtengo Tourrak.  
Lehen etapak  
mugituak izango  
dira”

## modu an zeundeke?

Bai, zalantzarik gabe. Tourra bezalako lasterketa batean, ahalik eta ondoen iristea da denon nahia. Prestaketa horretara bideratuta dago. Gero, egunetik egunera joan behar da eta taldean horrelako aukerarik suertatzen bada, ba aprobetxatzeko modukoak izango da.

Hasi-  
era nahiko bihurria du aurtengo Tourrak. Lehen eta-

pak mugituak izango dira. Gainera prologo gabe hasten da eta, horren ondorioz, oraindik eta arriskutsuago izango da karreraren hasiera. Lehen egunetan nerbio gehiago izango dira tropelean.

**Proba garrantzitsua izateaz aparte, Tourrari begira egiten den lasterketa da Dauphine Libere. Zuk sasoi onena**

Tourra hasteko gogotsu sumatu dugu.

## hartzeko baliatu duzu, ezta?

Azkeneko urteetan, batzuk nahiago izaten dute Suitzako Itzulia egitea, Dauphine baino aste bate beranduago delako.

Nik aukeran Dauphine egitea nahiago dut. Zeren normalean etaparen bat beti Tourreko etapa baten berdina izan ohi da. Aurtengo Alpe D'Huezeko. Hori igo dugu Dauphine, eta orain behintzat etapa hori ezagutzen dugu.

**FROOME, ETA BESTEAK**  
Contador eta Froome, horiek dira denen ahotan diren hautagai nagusiak. Besterik aipatuko al zenuke zuk?

Aurtengo Froome da faborito nagusia baina Contador ere hor egongo da. Bere emaitzak hor daudelako. Horien ondoren, hautagaien zerrenda zabalitzen hasten da. Eta gazteak ere badatoz goraka, Van Garderen (iaz bosgarren izan zen), Van der Broek... Valverde bera ere hor dago.

**RadioShack Leopard Trek taldearen denboraldi hasiera ez da erraza izan. Armstrong kasua, Johan Bruyneel-ek taldea utzi behar... Entrenatzaile aldaketak zein neurritaraino aldatu zuten zure lan dinamika.**

Hau guztia gertatu zen iazko denboraldia amaitu eta gero, atsedean garaian ginenean. Berehalak jarri zuten agintean Luca Guercilena. Iaz zuzendari bezala izan genuen eta guztiok ezagutzen genuen. Alde horretatik, errazagoa izan da dena. Urte hasieratik berarekin egin dugu lan eta jendea oso gustura dago. Guztion errespetua zuen eta hori izan da giltza. Jendeak segituan ulertu du bere lan egiteko modua eta nik uste dut taldeak ondo abiatu duela denboraldia. Batez ere Fabian Cancellarekin. Klasikoen denboraldia ederra izan da. Besterik kasuan, itzulietara zuzenduta dugu denboraldia, agian garaipenak ez dira nahi bezain beste etorri. Dena den, azken asteotan bi lortu ditugu eta uste dut lan ona egiten ari garela. Emaitzak ez dira nahi bezain onak izan akaso, baina oraindik denboraldiaren erdian gaude eta horri buelta emateko moduan gaude oraindik.

## “Kanpoko txirrindulariak harrিতuta geratzen dira hemen dagoen afizioarekin”

**Tourrera euskaldun jende asko joaten da. Tartean, usurbildarrak. Ez dakit horien animoak ere sumatzen ote dituzun aldapan gora zabiltzanean?**

Bai, eta beti ilusioa egiten du. Tourrean parte hartzen ari zarenean, burbuila batean sartuta zaude. Gauzak oso mekanikoki egiten dira, hotela, autobusean muntatu, karre-  
rara joan, hotelera itzuli...

Eta horrelako etapetan jendea

ere fijaszen zara eta ezagunak ikusten dituzu. Pirinioetan, gailurrean bukatzen diren etapetan, taldeetako autobusak behean egoten dira txirrindularien zain. Bizikletan jaitzen gara eta beherakoan saiatzen zara ezagunekin egoten. Gustagarria da beti ere ezagunak hor animatzen ikustea. Jakinda gainera etxetik hara joanez zer nolako lanak hartzen dituzten. Horregatik eskertzekoa da.

**Atzerritar asko daude zure taldean. Txundigarria izango da beraientzat ere, ezta?**

Bai, etapa horietan, afaltzeko orduan beti ateratzen da gaia. Baina ez bakarrik Tourrean, Euskal Herriko itzulira etortzen direnean ere berdin izaten da. Nahiz eta eguraldi txarra egin, nola egoten den jendea errepidean. Txirrindulariak harrিতuta geratzen dira hemen dagoen afizioarekin.





## AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

### Kontxako arraunlaria

**M**ila bederatzehun eta hirurogeigarren urtean Kontxan jokatzen diren estropadetan, Aginagako traineruak parte hartu zuen eta gainera bandera preziatu hori irabazi. Antonio Oliden, Tiburtzio Etxeberria, Patxi Maioz, Imanol Ikutza, Antonio Manterola, Joxe Mari Mujika, Ramon Pikabea, Joxe Ramon Urkia, Martin Errasti, Rafael Almandoz, Juan Ikutza, Julian Pikabea, Batista Oliden, Klaudio Etxeberria patroilantetan eta ordezkotzat, Andres Bruño. Urte batzuk badira talde horretako Batista Oliden eta Klaudio Etxeberriak utzi zigutela eta aste honetan Martin Errasti joan zaigu. Bere hiletara jende ugari etorri zen azken agurra eta familiarri bere babesa ematera. Lerro hauen bidez "animuak" bere emazte Beatriz eta familia osoari, eta zuk Martin, zauden tokitik "olatuak" ondo hartzen lagundu seme İnakiri.



## KALEZAR

MADDI GALBETE

### San Joanak

**N**ahiz eta eguraldiak ez digun gehiegi lagundu autengoan, egitegiari erreparatuta eta kurtso bukaeran murgilduta gabiltzala kontuan hartuta, San Joanek noizbait iritsi behar zuten. Negu gogorra izan da pasa berri duguna, eta inguruan festa gogoia usaintzen da. Aurreko asteburuan ospatu zen lehenengo asteburua Kalejarren, eta datorrenean emango diegu bukaera. Pasa den asteburuan bertsolariak izan genituen larunbat gauean, eta Umeen Eguna izan zen protagonista igandean. Datorren asteburu honetan berriz, Oilasko Biltzaileen Eguna, kontzertu desberdinak, euskal dantzak eta San Joan sua izango ditugu nagusi. Ekainaren 24an bukatuko dira festak, eta aurreko eguneko errautsen artean, urteroko erritua bilakatu den Gorritiren Showa izango da gurean. Bukatzeko, sardina eta sagardo dastatzea izango da arratsaldeko 19:00tan. Bertaratzerantz animatzea besterik ez zait geratzen, giroa ez da faltako eta! Eta festak bukatzearekin batera ofizialki udara hasten denez, ondo bukatu ikasturtea eta hobeto hasi udara!



## KALEBERRI

MADDI ZALDUA

### Festarik festa

**I**zenburua irakurtzea besterik ez dago zertaz ari naizen jakiteko. Urteroko legez eguzki izpien berotasunarekin batera datoz aurten ere herriko festak. Bai, beharbada erratu egin naiz eguzki izpien kontu horrekin. Hala beharko luke berez, baina aurten agertzeko beldur dira antza. Santixabelak berriz ate joka dauz-kagu dagoeneko. Hamar bat egun besterik ez dira geratzen gau eta egun festaz etenik gabe gozatzeko. Kalejarreko San Joan jaiek atek ireki berri dizkiete usurbildarron Santixabelei, gero gurek Euskal Herriko txoko ezberdinetako beste hainbati irekiko dien modu berdinean. Elkarri segika etortzen dira udako festak, hori ziur dakit. Beraz euriak-euri, ekaitzak-ekaitz, festa giroaz gozatzeko garaia dugu orain. Ez diezaiegun bada ihes egiten utzi eta neguko oinetakoekin bada ere goza ditzagula. Nik badaezpada aterkia eskura eramango dut nahiz eta euripean dantza egiteak ere baduen bere xarma.



## SANTUENEA

İÑAKI LARRAÑAGA

### A ze giroa

**H**au da ahoz aho darabilgun kontua azken aldian. Barce-nas, Urdangarin, edota krisia bera ere baino gehiagotan aipatzen dugu gai hau. Berdin da tabernan, igogailuan edo arrandegiko ilaran, "a ze giroa!", "baina zer da hau!", "nahikoa da!" entzuten da behin eta berriz. Normalean Irurtzundik aurrera nabaritzen da eguraldi aldaketa, ba azken aldian behintzat, oker dabilta gure anai nafarrak ere, uholde eta guzti izan dute eta. Beraz aurpegi ona jarri, eta aurrera egin beharko dugu, eta umorea galdu gabe, gainera San Joanak ditugu, aitzakia ona eguraldiaz ahazteko.

Usurbil Cup ere bukatu da, eta aurten ere izan ditugu partida batzuko auzoan. Poza ematen du bertan horrelako gauzak ikustea.

Ikastolan, klaseak aste honetan bukatzen dira, eta zer esan nahi du horrek? Ba gutxienez bi gauza, haurrak oporretan daudenez, kalean egon nahiko dutela, baina eguraldia ikusita uste dut etxean egoitea ere tokatuko zaiela nahi baino gehiago. Noski, haurrek ikasturtea amaitzean energia eta tentsioa askatu nahi dute, eta hori etxean egitea ez da erraza. Nik aholku bat emango dizuet, eduki ezazue Spidifen eskura, beharko dugu.

"Hi Larra, eta kronikan zeri buruz idatziko duk?"-esan zidan lagun batek, eta nik, "zeri buruz idatziko diat ba?". "Bazekiat orduan!"-erantzun zidan, eguraldiari buruz! Jajaja.



# Hezkuntza Mahaia osatu da

Ikasturtea parte hartze prozesu batekin abiatu zuten, eta ikasturte bera, sektoreko mahaia osatuz borobildu dute. Usurbilgo etorkizuneko hezkuntza eredu hileotako mintzagai nagusietako bat izan da herrian. Hainbat eragile, herritar bildu ziren urritik otsailera Potxoenean burutu zen lanketa prozesuan.

Aipatu moduan, parte hartzea bultzatu duen egitasmo honek eman du emaitzarik; ondoko argazkian dituzuen kideez osaturiko Hezkuntza Mahaia osatu da Usurbilen. Usurbilgo Udaleko hezkuntza alorreko ordezkari politiko eta teknikariak, Udarregi Ikastolako bigurak eta ziklo bakoitzeko irakasleek (HH-ko bat, eta LH eta DBH-ko bina), eta Aginaga eta Zubietako Herri Ikastetxeetako irakasle eta guraso batek osatuko dute. Hezkuntza Mahaian parte hartu ahal izango dute baita ikasle ohiek, interesa agertzen duen herritar orok, edota "gaiak horrela eskatzen duenean, beste eragile batzuk deituko dira; hezkuntza ez formalekoak, HLPP, Lanbide Heziketa..."

Mahaia osatu da bai, nahiz aipatu moduan, herritar eta eragile gehiagorentzat lekua duten bertan. Bilgunera gerturatu nahi dutenentzat, Hezkuntza Mahaia konpromisoan oinarritua egongo dela gogorarazten dute, "horrela gutxienik ikasturterako ordezkari hartuko du bere gain". Hezkuntza Mahaia, hasiera batean hilean behin biltzekoa da. Halere, beharren arabera aurrerago maiztasuna finkatu dezakete.

## Parte hartzea sustatu eta harreman sarea osatzea

Hezkuntza Mahaiko kideen egitekoak ere zehaztuak dituzte: besteren artean, mahaia-aren osaketa, karguak, funtzionamendu arauak, lanketarako gaiak edota lehentasunak finkatu edo onartzea.

Guztia, hainbat helburu betetzeko; nagusiki, herri hezkuntzaren proiektua gauzatzea, lan estrategi eta era bateratuak landuz. Baina badiutuzte esku artean, beste hainbat erronka ere; eragileen arteko harremanak sendotu eta eragileen sarea eratzea, ikastetxeetako esperientzien ezagutza eta elkar trukaketa bultzatzea; usurbildarrentzat Usurbildik egindako hezkuntza proiektua osatzea; kezka, ekarpen eta bes-telakoak jasotzeko gune bat egituratzea; esku hartze modu berriak diseinatzea; edota, tokiko hezkuntza eragileen eta hezkuntza komunitateko kideen parte hartzea sustatzea, "berezikiki ikasleen ahotsa kontutan hartzeko bide-



Parte hartze prozesuaren emaitza izan da Hezkuntza Mahaia osatzea.

## LEHEN EGITASMOA

***Irailean landuko duten lehen gaia hau izango da: "eskola, ziklo eta etapa aldaketak, ikastetxe batetik besterako trantsizioak"***

ak landuko dira".

Mahaia osatzearekin batera, 2013-2014 ikas-

turterako lehen lan ildoak ere zehaztuak dituzte jada. Bilgunetik berri eman dutenez "parte hartze prozesuan zehar ateratako gai zerrendatik" hautatu dute, irailetik aurrera landu asmo duten lehen gaia: "eskola, ziklo eta etapa aldaketak, ikastetxe batetik besterako trantsizioak". Hezkuntza Mahaiko kide guztiak inplikatzen dituen gaia da hau, eta bertatik berri eman dutenez, "denek ondo ikusi dute lehentasuna bertan jartzea".

## Aisialdiko ikastaroak egin dituztenek diru-laguntzak eskatzeko aukera

Ikasturtean zehar, begirale edota zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroa egin duten usurbildarrek, matrikularen erdia ordaintzeko, udal diru-laguntza jaso dezakete. Usurbilgo Udalak alor honetarako diru-laguntza deialdia egin du. Hauexek, kontuan hartu beharrekoak:

- Epea: ekainak 17-28.
- Nori zuzendua: 2012-2013 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egin dituzten usurbildarrei.
- Onuradun izateko baldintzak: Usurbilen errol-datua egotea, ikastaroa euskaraz eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea, ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako

gehienezko epearen barruan titulua lortzea.

- Aurkezteko lekua: udal erregistroa.
- Aurkeztu beharreko dokumentazioa: diru-laguntza eskari normalizatua, eskatzailearen NAN fotokopia, matrikularen ordainagiria, ikastaroan matrikulatu izanaren agiria, atal teorikoa gainditu izanaren agiria, zinpeko aitortpena beste diru-laguntzarik jaso bada.
- Banatuko diren diru-laguntzak: matrikularen %50 (begiraleen kasuan, 250 euro gehienez, 150 euro gehienez zuzendari ikastaroaren kasuan).
- Informazio gehiago web orrialde honetan: <https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2013/06/07/e1305667.htm>



# Jokalari denak protagonista, Usurbil Cup





# futbol txapelketako sari banaketan





## FESTA GOSEA ASETZEKO, AUKERA BERRI BAT KALEZARREN



Dj Burundak girotu zuen aurreko igandeko dantzaldia.

**H**onez gero indarberrituta ezta? Lau eguneko atsedenen ostean bueltan dator eta jai giroa Kalezarrena. San Joanetako asteburu luzeena, bigarrena eta azkena ate joka dugu jada. Musika eskaintza zabala gauetarako, oilasko biltzaileak, San Joan bezperako eskea, sua eta, ekainaren 24an, jan edan edota soka dantzarekin, aurtengo festen agurra. Sasoiko egonik ere, indarra gorde, etenik gabeko lau festa egun datoz eta.

### OSTIRAL HONETAN ZUMARTEKO ABESBATZA GAZTEA, ERMITAN

Udari bakarrik ez, bigarrenez ongi etorria emango diogu Kalezarko San Joanei, ostiral honetan, ekainaren 21ean. Patata tortila txapelketarekin eta Zumartekoen ikasturte amaierako azken saioarekin. Abesbatzako kide gazteenak igoko dira Kalezarko ermitara. Gauean, bai ostiralean eta baita larunbatean ere, parranda giro ederra goizaldeko ordu txikiak arte. Arto2xar, Berri Tzarrak, Luz de Putas eta Gugaz hilaren 21ean. Dj Gude Oilasko Biltzaileen Egunaren amaieran.

### OILASKO BILTZAILEAK

Etxeko txikiak irtengo dira aurtan, larunbat goizeko 9:00etan abiatuko den

oilasko biltzaileen kalejiran. Eta gero bazkaritarako bilduko dira auzoan. Otordurako txartelak iragan igandean salgai jartzeak zituzten Jai Batzordekoak. Musa eta herriko dantzarien saioak osatuko dute larunbat arratsaldeko egitaraua.

### SAN JOAN SUA

Igandekoa berriz, eskeak eta suak, ekainaren 23a San Joan bezpera izango baitugu. Bazkalostean irtengo dira Jai Batzordeko kide, auzotar eta herritarrak, aurreko urteetan trikitilari eta bertsolariak bide lagun izan dituzten kalejira luzean. Goizaldera arte luzatuko baita. Beste hainbat lekutan piztu eta gaua argituko duen San Joan sua pizteko unean ere bertan izango dira. Igande gaueko 22:00etan Kalezarren.

### EGUN HANDIAN SOKA-DANTZA, ONDOREN SARDIN ETA SAGARDO DASTATZEA

Eskeak sua piztu ostean ordu batzuek jarraituko du. Bezperako ajea ezingo dio astelehen buruzuriak kendu, jai eguna izango baita Kalezarren. San Joanen amaiera, meza, toka txapelketa, buruhandi, soka-dantza eta jan edanarekin.

## SAN JOANAK AZKEN TXANPAN

### Ekainak 21 ostirala

16:00 Buruhandiak.  
17:00 Tortila patata lehiaketa.  
19:00 Zumarte Gazte Abesbatza ermitan.  
23:00 Arto2xar, Berri Tzarrak, Luz de Putas, Gugaz erromeria.

### Ekainak 22 larunbata

**Oilasko Biltzaileen Eguna**  
9:00 Oilasko Biltzaile Txikien irteera.  
14:00 Oilasko Biltzaileen bazkaria: norberak bere plater eta tresnak etxetik ekar ditzala.  
16:00 Musa: izen ematea, 16:30etan itxiko da.  
18:00 Herriko dantzariak.  
00:00 Dj Gude.

### Ekainak 23 igandea

**San Joan bezpera**  
15:00 San Joan eskearen irteera.  
22:00 San Joan sua.  
Ondoren, eskearen jarraipena.

### Ekainak 24 astelehena

**San Joan eguna**  
11:30 Meza nagusia.  
Ondoren, toka.  
13:00 "Gorritiren showa".  
17:00 Buruhandiak.  
19:00 Soka dantza. Ondoren, sardina eta sagardo dastatzea Saizar sagardotegiaren eskutik.

**Oharra:** Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.



# Aitzagaren auziak “militantzia politikoa zigortzea” bilatzen du

Itxiera salatu zuten leku berean, zazpi urte beranduago, berriz ere Aitzaga atarian bildu ziren izen bera daraman elkarteko eta tabernako kide eta langileak, baita hainbat herritar ere. Urriaren 17an Madrilgo Entzutegi Nazional espainiarrean Ezker Abertzaleko 40 kideren eta 90 bat herriko taberna edo elkarteren aurkako epaiketa abiatuko baita, Aieteko Nazioarteko Konferentzia burutu zela bi urte beteko diren egunean. Deklaratzera deitu dituztenen artean dago, Aitzaga Elkarte bera.



Aitzagako kide eta herritarren agerraldiko unea.

## Konponbide demokratikoan aurrerantz egiteko deia

Egoera honen aurrean, datozen hila-beteotan antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzea deitu zituzten herritarrek. "Estatuen itxikeria

ankerrari guk, bake justuaren eta askatasunaren alde gauden Aitzagakideok eta usurbildarrok oro har, neurriko erantzuna emango diegu. Konponbide demokratikoaren bidea urratzen segituko dugu, gure bur-

kideak sostengatzen, gure lokalak defendatzen. Eta bide horretan, ezinbestekoa izango da ere kalera atera eta mobilizatzea, konponbidearen alde indarrak metatzea", adierazi zuten Aitzaga kideek.

# Ekainaren 29an kantu-zikiro jana

Jakingarri, atsegineko eta interresgarritzat jo du Kantu Taldeak, iragan astean Udarregi Ikastolan burutu zuen ahotsa lantzeko ikastaroa. Ainara Ortega irakasleak zuzenduriko saioak hainbat argibide eman zizkien bertaratu ziren herritarrei. "Ahotsak aurre-prestaketa ona behar duela zioen. Abesteko prestatu egin behar dela: eztarria, masaila, ahoa, bizkarra, mingaina, burua, eta sabel arnasa hartzen jakin. Aurre-eriketak egin behar dira. Beharrezkoa da. Ahots teknika ikasteko nozio eta ariketa elementalak aurkezten zituen Ainarak. Izan ere ahotsaren heziketa oso garrantzitsua da, lan-

bide gehienetan ere beharrezkoa izaten baita. Kantatzerakoan gorputzaren garrantziaz jabetu behar gurela azpimarratu zuen, diafragma sentitu eta erabiltzen ikasi", adierazi dute Kantu Taldeak. Maizago egitea merezi duen ekitalditzat jotzen dute kantu zaleek.

## Txartelak alde zurretik erosi

Astearte honetan, afari merienda baten bueltan ikasturtea agurtu asmo zuten Kantu Taldekoek. Baina oraindik badute beste hitzordu bat ere. Santixabeletako kantu-zikiro jana. Ekainaren 29an, 12:00etan hasiko duten kantu jirarekin. Berri eman dutenez,



Ahotsa lantzen aritu dira Kantu Taldekoak.

"erabiliko dugun kantu-liburuxka, Kuxkuxtu taldeak berak ekartzen duena izango da". Gero, kantu-zikiro-jana ospatuko dute Askatasuna plazan. Otordurako txartelak aurrez eskuratu beharko dira.

## Hipo eta Tomax-en emanaldia, atzeratua

Ekainaren 21ean Santuenean emanaldia eskaintzekoak ziren Hipo eta Tomax pailazoak. Azkenean ordea, antolatzaileek, Santuenea Elkartekoak irailera atzeratu dute saioa. Aurrerago zehaztuko dute emanaldi egun berria. Hitzordu aldaketaren arrazoia, Kalezarko San Joanak dira. Hilaren 21eko pailazoan saioa, aipatu festa hauen tartean egokitu da. Honen aurrean, Santuenea Elkartekoek Hipo eta Tomaxen saioa egunez aldatzea hobetsi dute. Lehentasuna Kalezarko festei ematea nahi dute, eurak ere Santueneako festak antolatzerakoan antzeko egoeratan aurkitu izan baitira. Eta NOAUA!ri jakinarazi diotenez, ez dute gauza bera gertatzea nahi kalezartarrei.

## Zumarteko kontzertuak

Ikasturte amaierako azken kontzertuak egunotan, Zumarte Musika Eskolako ikasleen eskutik. Asteazkenean Sutegin eta ostiralean, Kalezarko San Joanean. Zehaztasun gehiago, hemen:

### Ekainak 19, asteazkena

**18:30** Biolin Max-Mix 1-2-3 Taldeak, Folk Taldea, Talde Instrumentalak, Piano bikoteak Sutegin.

### Ekainak 21, ostirala

**19:00** Zumarte Gazte Abesbatza Kalezarreko ermitan.

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

OKindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**TXAPELDUN**  
TABERNA  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna Iurra 2, 943 11 82 53

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
URDAINTZI@EUSTAINET.NET  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

# Garraio zerbitzua indartuko da uztailaren 1etik aurrera

**U**surbilgo Udaletik eginiko eskaerei erantzunez, eta oro har, herrialde mailako mugikortasuna hobetu asmoz, garraio publikoa indartzeko konpromisoa adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Konpromisoa, egitasmo zehatzetan gauzatuko du gainera, epe motzera. Ildo honetan, zortzi zerbitzu berri txertatuko ditu Aldundiak, 2.595.000 euro bideratu dituzten egitasmo honen baitan. Zerbitzu berrietatik bat, Euskotreni loturikoa, irailean jarriko dute martxan. Beste zazpiak, laster, uztailaren 1etik aurrera. Hauen artean, Aldunditik berri eman dutenez, "egungo bi zerbitzu birmoldatuta ondoko bi lineak jartzen dira martxan; Usurbil-Oria-Lasarte-Ospitalak eta Usurbil-Zubieta-Lasarte-Urbil-Hernani":

**Usurbil-Oria-Lasarte-Ospitalak:** ospitaleetara doan zerbi-



Usurbil-Oria-Lasarte-Ospitaleak izango da indartuko den zerbitzuetako bat.

tzu hau egunean sei aldiz Aginagaraino helduko da aurrerantzean, Usurbilgo Udaletik eginiko eskaerari erantzunez.

**Usurbil-Zubieta-Lasarte-Urbil-Hernani:** lehen baino bi aldiz gehiago igaroko da zerbitzu hau Zubietatik. Ospitalera joan nahi duten zubietarrek bestalde, Lasarten egin beharko dute transbordo, eta aurrerantzean Aginaga ospita-

leekin lotuko duen beste zerbitzuko autobusa hartu. Beste aldaketa bat; lehen Usurbil eta Astigarraga lotzen zituen zerbitzu hau, uztailaren 1etik aurrera Hernanin amaituko da. Astigarragaraino joan nahi duenak, Hernanin bertan egin beharko du transbordo. Erraz, 15 minuturo baitaude Astigarraga aldera joateko autobusak.

Zerbitzuon ordutegiak kontsultatzeko: [lurraldebus.com](http://lurraldebus.com)

## Euskarako diru-laguntza deialdia, uztaileko

**I**kasturte honetan euskara ikasten aritu direnek udal diru-laguntzak eskatzeko aukera izango dute. Aurten ordea, ohi baino beranduago. Uztailaren 3tik 17ra bitartean.

Bestetik, Etumeta AEK eus-

kaltegiak uda honetarako ikastaroak antolatu ditu aurretan, "udan ere eman euskara elkarri" lemapean. Ikastaro trinkoak batetik, 100 ordukoak uztaile eta iraila bitartean. Maila guztietako ikastaroak baita, 1, 2 eta 3. (E.G.A.) mai-

lako azterketak prestatzeko aukera egongo da. Informazio gehiagorako:

**Etumeta AEK Euskaltegia**

Kale Nagusia, 45 behea.

607 609 379.

[usurbil@aek.org](mailto:usurbil@aek.org)

[munterri.blogspot.com.es](http://munterri.blogspot.com.es)

### EPA-HHiko matrikulazio epea irekita

Ekainaren 27ra arte. DBH-ko graduatua atera, edota Unibertsitate zein Lanbide Heziketako Goi Mailako sarbide probak prestatu nahi dituztenek izena emateko aukera dute. "Irailaren 9tik aurrera, hauek gain, beste ikasgaiak (ingeleza, informatika...) egin nahi dutenak matrikula daitezke. Saiatuko gara baita ere, ikasturte honetan Usurbilen hain arrakasta ona izan duen ingeleseko mintza praktika ikastaroa martxan jartzen", berri eman dute. Informazio gehiago:

[www.epalarte.es](http://www.epalarte.es)

Telefono zenbakia: 943 376 443

E-mail: [info@epalarte.es](mailto:info@epalarte.es)

### Aitzagakoien eskertza

Mus txapelketako parte hartzaile eta laguntzaile gutzietan eskerak helarazi nahi dizkiete antolatzaileek. Sei saioen ostean, ekainaren 7an amaitu zen hamargarren edizioarekin gustura geratu direla diote. Herriarrak, Santixabeletan txosnetan ospatuko den mus txapelketan parte hartzea gonbidatzen dituzte. Irabazleentzako sariak: [usurbileginez.com](http://usurbileginez.com)

### Pirinioetara irteera, uztailaren 13 eta 14an

Datorren hileko bigarren astebururako finkatu dute Andatza Mendizale Elkartekoek, urteroko Pirinioetarako irteera. Oraingoan, Zuberora aldera jotzea proposatzen dute, uztailaren 13 eta 14an.

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**

☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**

943 37 10 42

Zubiaurrenea 5

**Errazkin S.L.**  
igeltseritza orokorra

943 24 01 76 eta  
649 435 470

[errazkinsl@euskalnet.net](mailto:errazkinsl@euskalnet.net)

Oztaran auzoa 33, URNIETA



# Australiara, mundu mailako garaipen berriaren bila



Garazi Iturralde (hirugarrena ezkerretik) eta Xabier Olano (seigarrena), Australiara joango direnen artean.

**O**raingoan Australia dute helburu. Kayak surfeko munduko txapelketa ospatuko da Sunshine kostaldean (Queensland, Australia), uztailaren 9tik 21era. Bertara doa, 2011n munduko garaile amaitu zuen Euskal Herriko ordezkari bat ere. Hamar kirolari, eta haien artean bi herritar; Garazi Iturralde zubietarra eta Xabier Olano usurbildarra. Parte hartzaileek adierazi dutenez, "berriro ere, euskal talde sendoa osatu da, indartsua. Urtean zehar ospatutako txapelketen emaitzetatik osatua, beraz, urte osoko eta aurreko denboraldiko kirolari osatuenek borrokatuko dute munduko beste herrialdeen aurka".

Bidaiarako azken prestaketa lanetan murgilduak dabilta, bi aste baino ez zaizkie falta eta, Australia alderako hegazkinera igotzeko, eta aipatu dutenez, "gure hoberena emateko". "Azken mundialetik lanean aritu gara, aurten berriz ere Munduko Txapelketara joan ahal izateko, gure maila erakusteko, dirua ateratzen: kamisetak, erri-fak, kilometroetan, estropadetan postuak jarriz... Aurrekontu altu bat suposatzen zuen talde oso bat eramateko, baina gogoz aritu gara lanean, nahiz eta gure kirolak mundu mailan manten-

tzearen ilusioan trabak baino ez dauden", adierazi dute. Laguntza eskaini dietenak eskertu nahi dituzte. Lagun, familia eta inguruko guztiak, baita erakundeen arloan, "Usurbilgo Udala, Real Club Nautiko San Sebastian; Vicinay Cadenas; Eusko Jaurilaritza; Euskal Herriko Kanoe Federakuntza...".

## PARTAIDEAK

### Seniorrak:

Edu Etxeberria, Urko Otxoa, Xabier Olano eta Julen Arrizabalaga (azken Munduko Txapelketako garaile, junior mailan).

### Masterrak:

Oskar Martinez eta Txema Karreto.

### Damak:

Ainhua Tolosa eta Garazi Iturralde

### Juniorrak:

Odei Etxeberria eta Teresa Carranza (kide berriak).

### Euren berri:

ehkss.blogspot.com.es / kayaksurf.net / Facebook-en Surf Kayak World Championship 2013

## Eskubaloi Elkartearen eguna, larunbatean

Amaierara heldu den kirol urtea agurtzeko Eskubaloi Elkartearen Eguna antolatu dute larunbat honetarako, ekainaren 22rako. Egunean zehar, hainbat eskubaloi partida programatu dituzte. Goizekoa, argitzeke dago non burutuko den, baina arratsaldeko neurketak Oiar-do Kiroldegian jokatu dira. "Taldeen osaketarako, parte hartzaile guztiei dei egin nahi diegu, euren mailako hasiera ordua baino 15 minutu lehenago ager daitezela neurketak jokatuko diren lekura", ohartarazi dute antolatzaileek.

Aurreko orduetako ekitaldietan parte hartu dutenek Aginaga sagardotegian afaltzen borobildu asmo dute eguna. "Jokalariak, jokalaririk ohiak, delegatuak, gurasoak, zuzendari-tza-kideak eta eskubaloi zaletu oro gonbidatua dago bertara", luzatu dute gonbita Usurbil Kirol Elkartetik. Afariaren prezioak; 20 euro 16 urtetik beherakoentzat; 25 euro 16 urtetik gorakoentzat. Otordurako txartelak, Bordatxon salgai, ostegun iluntzera arte. Hauxe egitaraua:

- 10:00-12:00 Alebin eta infantilak, neskak / mutilak.
- 16:00 Kadete mutilak, entrenatzaile eta gurasoen aurka.
- 17:00 Kadete/jubenil/senior neskak, elkarren aurka.
- 18:00 Jubenil mutilak/2. territoriala, elkarren aurka.
- 19:00 2. nazionala/beteranoak, elkarren aurka.

## Futbol Taldearen Eguna ere larunbat honetan ospatuko da

Goizetik goizaldera, jolasak, futbol neurketak, afaria eta parranda iragarri dituzte. Hauxe, Usurbil FT-tik bidali diguten egitaraua:

- 10:30 Futbol Eskolako eta alebinetako jokalariekin jolasak herrian zehar.
  - 13:30-14:00 inguruan, Askatasuna plazan bazkaria.
  - 15:30 Umeak jasotzeko ordua.
  - 18:00 Zuzendaritza vs beterenoen partidua (neskena ez da aurrera atera).
  - 19:30 Triki poteoa Artzabalen hasita (Artzabal, Bordatxo, Irrati, Txiriboga, Benta).
  - 21:30 Jokalari, entrenatzaile eta zuzendaritzaren afaria Askatasuna plazan.
- Gero, etxera edo Kalexarrera!  
Antolatzailea: Usurbil FT.

## Nesken futbol taldea osatzeko bilera

**2**013-2014 denboraldirako 16 urtetik (hauek barne) gorako nesken taldea osatzeko bilera deitu du Usurbil FT-k, ekainaren 26rako 19:30etan Haranen. Hitzordura agertzeko deia egin dute antolatzaileek. "Bertaraten direnen arabera erabakiko dugu taldea osatzen

den edo ez. Gutxienez, 18 neskak azaldu behar-kolukete taldea osatzeko, bestela ez baitugu nahiko jende izango", ohartarazi dute Usurbil FT-tik. Bilera deialdi bakarra izango denez, "benetan interesa duenak, esfortzu bat egin dezala bertaratzeko. Horixe ba, animatu daitezela!!".

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berrituko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpenean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisu salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroaren pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisu salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisu salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitasi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisu salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisu salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro, 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

## Alokairuan

Pisu alokairuan edo salgai Munalurran. 637 309 209.

Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, Txaramunton. 4 gela, sala, bi komun eta sukaldea. Abala eskatzen da. Tlf. 688 675 856

Pisu bat alokatzen da kaxkoan, 3 logela, sala, sukalde, komuna. Dena kanpoaldera, eguzkitsua. 648868599

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495 - 695767821 - 657711335

Gela bat alokatzen da dena berri-

tua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzeritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisu edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisu alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil 622 856 181.

## MOTORRA

salmenta,  
garajeak

Kia Carnival 2.9 CRDI EX 5P 144 C. monobolumena (7 plaza) salgai. 6.500 euro, 80.500 Kms. 645737925 / 691785568

Garaje itxita salgai. 20 m karratuak. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.781cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4Tdi 80zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailea eta beti garajea.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000km, gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrena 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunton kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Udan edo ikasturtean zehar umekak zainduko nitzuke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaxo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatze eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nitzuke goizez zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomaturia. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko

pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldar, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketari eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordu-tan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatatu... Garbiketari lanetarako orotar. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrek ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeniari ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldean 6-12 urte-tako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematikako klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676



**Zorionak Anje!** Ekainaren 24ean, 6 urte beteko dituzu. Muxu potolo bat eta ondo pasa!!!! Unax, Oihan, June eta Aratz.



**Apa June!** Zorionak! Ekainaren 20ean 3 urte beteko dituzu. Muxu potolo bat Agiñako eskolatik.



**Zorionak Haritz!** Ekainaren 21ean 8 urte beteko dituzu. Beraz, gure zorionik beroenak opa dizkizugu. Besarkada handi bat bihotzez. Ama, aita eta arreba.

## Heriotzak

**Martin Errasti Reparaz**  
79 urterekin hil zen  
ekainaren 12an, Aginagan



Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan  
erredakzioa@noaua.com



Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldian lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

### Lan eskaintzak

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egun osoan, astelehenetik ostiralera. 943 550 550

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

### BESTELAKOAK

Hemengo intxaurrea erosiko nuke, deitu 634 409 888

Frantseseko klaseak hartuko nituzke. 666 607 447

Erromeri talde baterako, tronpetata eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea, grisa, horia eta naranja kolorekoa. Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo [djlarra@usurbil.com](mailto:djlarra@usurbil.com)

Usurbil eta inguruetan belardiak

hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Hiru metroko sofa salgai, "txeslorarekin". 400 euro (negoziagariari). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gazte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haur jokoak, liburukak, kirol materiala, ispiluak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala .....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea .....	943 376 650
Atez ateko bulegoa .....	900 776 776	Taxia (Angel) .....	607 928 770
Udaltzaingoa .....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz) .....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada) .....	943 370 148	Eusko Tren .....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea .....	697 919 516	LurraldeBus .....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak .....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua .....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea .....	943 361 215	Anbulategia .....	943 362 013
Bake Epaitegia .....	943 372 336	Oa botika .....	943 376 076
Udarregi Ikastola .....	943 361 216	Iturralde botika .....	943 363 395
Haur Eskola .....	943 374 061	DYA .....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola .....	943 364 600	Gurutze Gorria .....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra .....	943 372 077	Emergentziak .....	112
Hastapen tailerrak .....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta. .	900 840 111 / 016
KZgunea .....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea .....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia .....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa .....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia .....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola .....	943 371 594	Banco Guipuzcoano .....	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia .....	607 609 379	Banco Popular Español .....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa .....	943 365 249	BBVA .....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza .....	943 368 770	Caja Rural Kutxa .....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza .....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola .....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza .....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas .....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia .....	943 361 239	Telefonica .....	1004
NOAUA! Kultur Elkartea .....	943 360 321	Euskaltel .....	900 840 840

## Goardiako farmaziak ekainak 20-ekainak 30

**Osteguna 20** ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

**Ostirala 21** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Larunbata 22** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Igandea 23** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Astelehena 24** GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

**Astearte 25** ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

**Asteazkena 26** DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

**Osteguna 27** RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

**Ostirala 28** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 29** GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

**Igandea 30** GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00etatik  
13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8  
(Antziola). Hernani. 943 336 022  
22:00 - 09:00

# LOGOPEDA

USURBIL 635 70 13 74

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

# Agenda ekaina

## 21 ostirala

- San Juanak Kalezarren (ikus 12. or).
- Zumarte Gazte Abesbatza. Kalezarreko ermitan, 19:00etan.
- Artzabalgo pintura ikastaroko erakusketak, 17:00-20:00.

## 22 larunbata

- San Juanak Kalezarren, Oilasko Biltzaileen Eguna (ikus 12. or).
- Futbol Taldearen eguna (ikus 15. or).
- Artzabalgo pintura ikastaroko erakusketak, 10:00-13:00 / 17:00-20:00.

## 23 igandea

- San Juanak Kalezarren (ikus 12. or).
- Artzabalgo pintura ikastaroko erakusketak, 10:00-13:00.

## Pelexen 27 artelan ipini dituzte ikusgai Artzabalen

Herritarrek eginiko artelanak jarri dituzte erakusgai Artzabal tabernan. Oraingoan Pelexek eginikoak ikusteko aukera dago asteotan, ekainaren 27ra arte. Artista usurbildarraren esanetan, "erakusketak honetara pixka bat denetik ekarri dut, hala ere nire egitasmo berriaren ukitu batzuk ikusiko dira testu hauekin, konturatuko zarete nora iritsi nahi dudana".



Irudian, Pelexen lanetako bat.

"Espazioak, hutsuneak hormen joan etorrian talka hotsak sortzen diren ideiak, irudi eta formak, nire ikerketaren gainerako sormenean oinarritutako obra, bertan islaturik

nire lanari zentzua ematen dion mugimendu nahiz oreka. Hau da, benetan geurea den sentimendu batetik sortzen den emaitzarik onena eskaintzen du nire obrak, berezko EUSKAL PILOTA".

### Kiki, Koko eta Moko pailazoak Usurbilen

Ikasturte amaieran ospatu ohi da Plis, Plas, txalo ta Jolas ikuskizuna. Aurten, Kiki, Koko eta Moko pailazoak izango dira protagonistak. Ostegun honetan, ekainak 20, arratsaldeko 17:00etan frontoian.

### Ekainaren 29an, 1983koen kinto afaria

30 urteak ospatzeko baliatuko duten hitzordua, ekainaren 29rako, larunbata deitu dute Zumeta jatetxean. Aldiz, lehenago, arratsaldeko 19:30etan Mikel Laboa plazan jarri dute potetzeko zita.

### Datozenak

#### Santixabeletarako prestatzen

Egun gutxi geratzen dira jada 2013ko Santixabeletarako. Are gutxiago ordea, datozen herriko festetan izango ditugun ospakizunen berri izateko. Azken orduko aldatarik ez bada, Usurbilgo Udala asteburu honetan banatzekoa da Santixabeletako egitaraua. Diseinua, Arantxa Zulaika lasarte-arrak sorturikoa da. Gogoan izan, ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko dira aurtengo Usurbilgo jaiak.

#### Txosnak, Askatasuna plazan

Txosnen kokagune izango da Askatasuna plaza. Aurten, lau eragileek elkarlanean antolatu dute, txosna guneko egitaraua; Itayak, Ernaik, Usurbilgo Gaztetxeak eta Akerre Gaztetxeak. Bost egunetarako ekitaldi eskaintza zabala prestatu dute. Musika, txapelketa originalak, hainbat otordu...

#### Presoen eskubideen aldeko ekitaldia jaietan

Jaietako egitarauak iganderako iragartzen duen arren, euskal preso eta iheslari politiko-koen eskubideen aldeko ekitaldia ekainaren 29an larunbata ospatuko da. Herrirak antolaturiko hitzordua arratsaldeko 20:00etarako deitu dute. Ohi bezala, Askatasuna plazako txosna gunean.

**Jose Aizpurua**  
**Unanue eraikuntzak S.L**  
 **teilatuak eta fatxadak**  
**943 37 38 79 - 620 80 01 86**  
 Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

**txirriStra**  
 TABERNA  
  
 -Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak  
 Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



# UDAN ERE

## EMAN EUSKARA ELKARRI



aek

- **IKASTARO TRINKOAK**
- (uztaila-irailean 100 orduko ikastaroak)
- **MAILA GUZTIETAKO IKASTAROAK**
- 1, 2 eta 3. (E.G.A) mailako azterketa prestaketak

607 609 379 [usurbil@aek.org](mailto:usurbil@aek.org)  
[www.munteri.blogspot.com.es](http://www.munteri.blogspot.com.es)

**ETUMETA AEK**  
**usurbil**

Kale Nagusia, 45 behea.  
20170 USURBIL





# berriak 10 urte

**Ekainak 22**

Martin Ugalde Kultur Parkea

**Andoain**

**berria**

11:00etatik 12:30era,  
BERRIA ezagutzeko aukera

11:00etan,  
Irrien Lagunak- Kanta eta dantza

12:00etatik 13:00era,  
Sagardo dastaketa

13:30ean,  
ekitaldi  
nagusia

12:00etatik 12:30era, bertsolariak:  
Arrate Illaró, Odel Barroso  
eta Beñat Gaztelumendi

14:00etan,  
bazkaria

16:00etan, kontzertua:  
Napoka Iria, Petti eta Morau  
18:00etan, kontzertua: Gose

Txosna, ogitartekoak, pintxoak... Bazkarirako txartelak, 10 euro. Erreserbatu 943-30 43 45 telefonoan. Txartelak egunean bertan banatuko dira BERRIAko harreran. Gainerako ekitaldiak, DOAN!

Antolatzailea: **berria**

Babesleak:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

LABORAL  
KUTXA

Irizar

Laguntzailea:

**Kaiku**